

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

16/2025 Foru Dekretua, maiatzaren 20koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Arabako Lurralde Historikoko Mahasti Nabarmenen Katalogoa arautzeari

Mahatsondoa ardoa egiteko landatu da antzina-antzinatik, eta klimak mahatsa heltzeko modua ahalbidetzen duen leku guztietara hedatu da. Arabako hegoaldean, zehazki, Arabako Errioxako eskualdean, mahastia ez da soilik biztanle gehienen diru sarreraren lehen iturria; beraien nortasunaren ikur eta paisaiaren elementurik bereizgarriena ere bada, eta, ondorioz, gizarte osoaren egiazko ondarea. Nolanahi ere, mahastiarena ez da irudikapen estatiko bat; mahastiak, mahastiek betetzen dituzten lursailak, mahatsen barietateak eta, oro har, ustiatzen den labore horren ekoizpen sistemak eta bitartekoak bilakatuz joaten dira, eta horiekin batera, denboraren joanean eratzen diren paisaiak.

Historian zehar, izurriteen eta gaixotasunen erasoaldiek arriskuan jarri dute mahastizaintza-aren biziraupena, eta, beste alde batetik, zenbait inguruabar edo aldi ekonomikotan, baliteke mahasti jakin batzuk behar bezain lehiakor ez suertatzea ekoizleentzat eta horiek ere bizirauteko arazoak izatea. Hainbat faktore direla kausa, hala nola mahasti zaharren ekoizkortasun txikia eta Europako programa edo funtsen bidez etorri diren berregituratzeko eta birmoldatzeko pizgarri ekonomikoak, batez ere, azken hogeitaz urteetan, mahastizainek eta upeltegiek kendu egin dituzte hain emankorrak ez diren eta lantzeko zailtasun handienak dituzten mahasti zaharrak. Izan ere, "mahasti zahar" deitutako gehienek, mahats gutxiago ekoizten dute mahatsondo bakoitzeko, eta, horrez gainera, faltak izaten dituzte eta oso landatze tarte estuen bidez landatuta egon ohi dira, lursail txikietan eta topografia malkarrekoetan; beraz, lanak, tratamenduak eta bilketa izugarri zailtzen dira; edo, are gehiago, egungo makinak eta lanabesak erabiliz ezin dira landu.

Era berean, mahasti zaharren azalera murriztea ekarri duen beste arrazoi bat hauxe izan da: mahasti horietako mahatsa saltzearen truke jasotako prezioaren igoera, kalitate hobeko mahatsak izan arren, ez da nabarmen hobetu lursail berriagoetako mahatsen prezioaren aldean. Horregatik, ekoizpen txikiko eta zaintza zaileko mahasti horiei eusteagatik sari ekonomikorik jaso ez dutenez, mahastizainek, askotan, mahasti zaharrak erauzi eta mahatsondo berriak landatu dituzte haien ordez, azken batean, mahatsondo berrien maneia errazagoa delako eta etekin handiagoa dutelako. Mahasti zaharrak mantentzeko eta kontserbatzeko laguntzen oinarri arautzaileak onetsi zituen Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 26ko 30/2018 Foru Dekretua (Kontseiluaren ekainaren 9ko 19/2020 Foru Dekretuak eta Kontseiluaren apirilaren 13ko 14/2021 Foru Dekretuak aldatua) akuilua izan da mahasti zaharren erauzketa hein batean gelditzeko, baina ez da nahikoa izan. Aitzitik, mahasti zaharren ordez, maneia errazten eta etekin handiagoa ematen duten mahatsondo gazteak sartu dira pixkanaka-pixkanaka.

Mahasti zaharrak funtsezkoak dira Arabako Errioxako mahastien ekoizpenean; izan ere, neurri handi batean, Errioxa jatorri-deituraren gainerakotik bereizten da ezaugarri horregatik. Mahasti horiek natura balio handiko nekazaritza sistemak dira, eta gainera, material genetikokoak eta biodibertsitatekoak bizirik irauteko gordailu bikainak dira, landareak oso egokituta baitaude naturaren beraren eta klimaren baldintza kontrakoan aurrean. Era berean, oro har, landatartasuna, ekoizkortasun txikia eta dibertsitate handia ezaugarri dituzten mahasti horiek sekulako garrantzia dute kalitate bereiziko ardoak egiteko. Beraz, beste arrazoi bat dago halako mahastien iraupenari eusteko eskualdean.

Azken batean, mahasti zahar horiek, zeinak paisaia tradizionalaren eta Arabako Errioxako berezko nekazaritza sistema hauen oinarritzko osagaiak baitira, bai eta biodibertsitatearen eragile eta kalitate handiagoko ardoen ekoizle ere, natura eta kultura ondare gisa kontserbatzea merezi dute, ekologiarren, historiaren eta paisaiaren ikuspegitik duten balioagatik.

Ilido horretan, ekainaren 3ko 89/2014 Dekretuak, Arabako Errioxako (Araba) ardoaren eta mahastien paisaia kulturala kultur ondasun, monumentu multzo kategoriarekin, kalifikatzeko denak, esandako mahastien babes araubidea deskribatu, mugatu eta onartzen du. Goian aipaturiko dekretu horren 1. artikuluan (Sustapen-neurriak), hauxe adierazten da: "Herri-erakundeek erabakitako sustapen-neurriak ezarriko dira Arabako Errioxako ardoaren eta mahastien paisaia kulturalaren monumentu-multzo osoan. Era berean, paisaiaren balioa indartzeko neurriak babestuko dira, eta paisaia hori eratu duten bizimoduei, ekoizpen-moduei eta tradizioei balioa emateko ekimenak lagunduko dira. Halaber, haren ondare-adierazpena egiteko eta hari balioa emateko ekimenak sustatu behar dira".

Kontserbatzea merezi duten mahastiak babesteko agindua betetze aldera, foru dekretu hau onetsi da. Bertan, haiek arautzeaz gain, Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailaren eskumenekoak diren eta mahastien ondare mehatxatu hori katalogatzea ahalbidetzen duten neurriak ezartzen dira, gizartearen ondare gisa legitimatzeko eta hura babesten laguntzeko tresna dela; hala, bateragarri egingo du mahasti horien baliabideen aprobetxamendu antolatua eta mahastion ekologia, zientzia, estetika, kultura eta hezkuntza balioak edo bestelako balioak kontserbatu edo berreskuratzea.

Kontuan hartu da ezen Batzordearen 2018/273 Erregelamendu Eskuordetuak gutxieneko edukia ezartzen duela baina ez duela mugatzen mahastiak landatzeko baimen sistema hautatu duten estatu kideetako mahastien erregistroetan jasotako informazioaren edukia (1338/2018 Errege Dekretuan jasotzen da); hortaz, haietan identifikazio markak sartzeko aukera dago, eta, horretarako, haiek zehazteko aukera emango duen arau garapena behar da.

Kontuan hartu da ezen, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Historikoen Legearen 7b) artikulua xedatutakoari jarraiki, Arabako Lurralde Historikoan, mahastizaintza eta enologiaren arloko garapen eta betearazpen eskumena Arabako Foru Aldundiari dagokiola, eta Arabako Foru Aldundiko 2023-2027 legegintzaldirako sailak zehazten dituen Diputatu Nagusiaren ekainaren 30eko 152/2023 Foru Dekretuak (ekainaren 28ko 78/2024 Foru Dekretuak aldatu zuen) dioenari jarraiki, mahastizaintza eta enologiaren arloko eskumena Nekazaritza Sailari dagokiola.

Kontuan hartuta zer ezartzen duen 1338/2018 Errege Dekretuak 28. artikuluan, egiaztatzen da aurreikusita dagoela mahastien erregistroak kudeatzen dituzten autonomia erkidegoek xehetasun eta zehaztapen gehiago sartu ahal izatea, nahi izanez gero, 2018/273 Erregelamenduaren arabera nahitaezkoak direnez gain; adibidez, mahastiak balio nabarmeneko ezaugarriren bat daukan, edo ezaugarri horiek zein diren.

Kontuan hartu da ezen, Arabako Foru Aldundiak, Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzuaren bitartez, baduela eskarmentudun langilerik eta baliabide nahikorik informazio, prestakuntza, mahastien prospekzio, katalogoan sartzeko eskaeren izapidetze eta mahasti nabarmenak izan daitezkeenak ebaluatzeko lanak egiteko, zerbitzu horrek eskumena izango du eskaerei, haien katalogazioari eta dekretu honen edukia garatzeko beharrezkoak diren zeregin guztiei buruzko ebazpena emateko.

Foru dekretu hau izapidetzeko, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak jasotako arautze onaren printzipioei jarraitu zaie, zeinak Arabako Foru Aldundiaren xedapen orokorrak egiteko prozedura onesten duen otsailaren 28ko 6/2023 Foru Dekretuaren 3. artikuluan ere jasota baitaude. Egiteko, kontuan hartu dira Arabako Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako V. Foru Planaren (2022-2026) inspirazio iturri diren emakumeen eta gizonen arteko berdintasun printzipioak, bai eta Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onesten duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintza Dekretuaren edukia eta Emakume

Nekazarien Estatutuaren urriaren 15eko 8/2015 Legea ere. Halaber, kontuan hartu dira Arabako Foru Aldundiko Berdintasun Zerbitzuak horri buruz egindako txostenean jasotako oharak. Era berean, segurtasun juridikoaren printzipioa bermatu da, behar bezala justifikatu baita, alde batetik, printzipio horren txertatzea ordenamendu juridikoan, eta bestetik, printzipio hori ematen duen organoaren gaikuntza. Gardentasun printzipioari dagokionez, ez da urratu, entzunaldiko eta jendaurreko izapideak bete direlako legez ezarritako epeetan. Eraginkortasun printzipioari dagokionez, planteaturiko arauketak, daukan izaeragatik, ez du eragiten administrazio zama osagarrikerik eta beharrezkoak ez direnik herritarrentzat, oro har, ezta baliabide publiko gehiago kontsumitzea ere. Sinpletasunaren eta ulergarritasunaren printzipioei dagokienez, proposatutako testua modu egituratuan eta hizkera argia eta ulergarria erabiliz idatzi da.

Kontuan hartu da Arabako Foru Administrazioaren Kontsulta Batzordeak 2025eko apirilaren 3an egindako bilkuran emandako irizpena, eta egin beharreko aldaketak egin dira proposatutako ondorioak asumitzeko.

Aginduzko txostenak ikusi dira, eta Nekazaritza Saileko foru diputatuak proposaturik eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa.- Onespena ematea Arabako Lurralde Historikoko Mahasti Nabarmenen Katalogoa arautzeki, Eranskinetan zehazten diren xedapenen arabera.

Bigarrena.- Nekazaritza Saileko foru diputatuari ahalmena ematea foru dekretu hau garatu eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapenak eman ditzan.

Azken xedapena. ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean foru dekretu hau.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko maiatzaren 20a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Nekazaritza Saileko foru diputatua

NOEMÍ AGUIRRE QUINTANA

Nekazaritza zuzendaria

DAVID FERNÁNDEZ SARABIA

I. ERANSKINA

1. artikulua.- Xedea

1.- Foru dekretu honen xedea da Arabako Lurralde Historikoko Mahasti Nabarmenen Katalogoa administrazio izaerako erregistro publiko gisa sortzea, eta bertan jasoko dira, Arabako Lurralde Historikoan dauden eta balio nabarmenak izateagatik kontserbatzeko interesa duten mahastiak edo mahatsondoak.

2.- Mahastiak edo mahatsondoak Arabako Lurralde Historikoko Mahasti Nabarmenen Katalogoan jaso behar diren erabakitzeke, erabakigarriak izango dira haien antzinasuna, kontserbazio egoera, biodibertsitatea, berezitasuna, orain dauden barietateak eta ahalmen enologikoa, baina beste balio osagarri batzuk ere kontuan hartuko dira, hala nola edertasuna, historia, mahastian edo haren inguruan dauden elementu arkitektoniko edo arkeologikoak eta kokalekua.

2. artikulua.- Kategoriak

Arabako Lurralde Historikoko mahasti nabarmenak kategoria hauetakoren batean sailkatuko dira:

Mahasti nabarmena: mahasti zaharra, osasun egoera onekoa, intereseko barietateak eta ekoizpen metodo tradizionalak gordetzen dituena eta, beraz, kontserbatu nahi dena.

Mahasti aparta: aurreko ezaugarriak izateaz gain, zientzia, kultura, paisaia edo enologia balio handia ematen duen mahastia; beraz, hura babesteko berariazko neurriak hartuko dira.

Mahasti monumentala: aurreko ezaugarriak izateaz gain, adinagatik, historiagatik, ekoizten dituen ardoen kalitateagatik, zientzia, kultura, paisaia edo enologia balioengatik, garrantzi handikotzat jotzen den mahastia. Mahasti nabarmenen babes goreneko kategoriako mahastiak direnez gero, beharrezko neurriak hartu, pizgarriak eman eta babesteko tresnak erabiliko dira, mahastiak beren bizitza naturala amaitu arte zaintzeko.

3. artikulua.- Katalogazioa

- 1 Mahastizaintza eta enologia arloko eskumena daukan sailak mahasti bat edo mahasti multzo bat katalogoan jasotzeko edo handik ateratzeko prozedura abiarazteko eskumena izango du, eta haren ardura izango da hartarako behar den informazio tekniko edo zientifikoa prestatzea.
- 2 Katalogoan jasotzeko edo handik ateratzeko prozedura ofizios edo jabeek, mahastizain kartillaren titularrek edo nekazaritza ustiategiek eskatuta hasiko da, eta eskaerarekin batera justifikazio tekniko edo zientifikoa aurkeztu ahaliko dute. Mahastizaintza eta enologia arloko eskumena daukan sailak eskaera aztertuko du eta prozedurari ekitea ala ez ekitea erabakiko du.
- 3 Prozedura hori urteko edozein unetan hasi ahal izango da, horretarako epe zehatzik egon gabe.
- 4 Dekretu honen ondorioetarako, mahasti bat Mahasti Nabarmen gisa kalifikatu ahal izateko, Arabako Lurralde Historikoan egon behar du, eta 1978a baino lehen landatu behar izan da.
- 5 Mahasti bat Mahasti Nabarmenentzat jotzeko eta kategoria jakin batean jasotzeko ala ez jasotzeko, jarraian adierazten diren alderdiak ebaluatzen dira, eta II. eranskinean

ezarritakoaren arabera baloratuko dira:

- Adina. Oro har, mahastia zenbat eta zaharragoa izan, orduan eta interes handikoagoa da. Bereziki baliotsuak dira filoxeraren izurriteak XX. mendearen hasieran Errioxako eta Arabako mahastiak erruz hondatu aurretik txertatu gabe landatu ziren mahastiak, oraindik ere zutik egon daitezkeenak zona jakin batzuetan, kontserbatu ahal izan direlako zonen ezaugarri bereziei esker.
- Osasun, kontserbazio eta mantentze egoera: gaixotasunek edo izurriteek erasotzeko minberatasuna edo joera, falta kopurua, aireko belaunketa bidez birlandatutako eta ordeztutako mahatsondo ehunekoa, besteak beste, aintzat hartu beharreko alderdiak dira mahastiaren kontserbazioa ebaluatu eta haren kategorizazioa proposatzeko.
- Landaketa tartea. Jatorrizko landaketa tarteei gaurdaino eutsi izanak, tarteko kaleak erauzi gabe, balioa ematen dio mahasti osoari. Kaleen zabalera estuak (1,50 metro ingurukoa) agerian uzten du eskuz edo lor abereak erabiliz lantzen zirela, Arabako lurraldean 1960-1965 arte ohikoa izan zenez.
- Oraingo barietateak. Dena delako zonan ohikoak ez diren barietateak egotea. Kasurako, gaur egun lantzen diren barietateen aurretikoak, hala nola Tenpranillo barietatearen aitzindaria den Benedicto mahatsa edo eskualdean desagertzeko zorian dauden zein bakanak diren beste batzuk.
- Mahastiko barietateen aukera. Bi barietate edo gehiago egotea.
- Kokalekua. Gaur egun mahatsondoak ohiko laboreak ez diren eremu batean landatuta egotea mahastia, kota garaietan landatuta egotea, ibilgu natural batetik gertu, hiri ingurune batean, upeltegi tradizional baten inguruetan, edo, oro har, berezizat edo garrantzitsutzat jotzen diren beste kokaleku batzuetan ere bai.
- Mahastiaren edo hura osatzen duten mahatsondoren baten ahalmen enologikoa, marka erregistratua duten zein ez duten ardo bikainak ahalbidetzen dituen.
- Berezitasuna eta biodibertsitatea, kokaleku duen eremuan bakana delako edo ohikoa ez den landare materiala dagoelako, zuhaitziak daudelako, lotutako laboreak daudelako (olibadia edo arbendolondoa, adibidez), edo mahastian edo inguruan biodibertsitate handia ahalbidetzen duen konfigurazio berezia dagoelako.
- Balioa handitzen laguntzen duen beste edozein ezaugarri, hala nola hauexek:
 - Edertasuna. Mahasti osoaren edertasuna nahiz hura osatzen duten mahatsondoan edertasuna. Hona hemen balioa ematen duten alderdiak: mahatsondoak eite garaia izatea; anduiak tamaina handikoak izatea; mahatsondoak forma bihurriak izatea edo harkaitzetan landatuta egotea; aireko belaunketa ugari izatea, eta haien euskarri gisa hesolak, harriak edo beste elementu batzuk erabili izana; kaleak sestra kurbei jarraiki jarrita egotea, edo malda handiko lurretan edo terrazetan landaturik egotea.
 - Historia. Mahastiari buruzko historia egiaztatuak edo kondairak, edo elementu artistiko gisa literaturan edo beste edozein adierazpide kulturaletan izan dituen agerpenak.

- Elementu edo aztarna zahar arkitektonikoak, eraikuntzakoak, arkeologikoak edo beste oroipen batzuk, mahastian edo inguruetan gizakiak izan duen presentzia edo egin duen jarduera agerian uzten dutenak, hala nola harkaitzetako dolareak, txabolak, etxetxoak, mahastiak zaintzeko etxolak, harrizko hormak, monasterioak, komentuak, ermitak, elizak, etxebizitzak, iturriak, biltegiak, upeltegiak, trikuharriak, menhirrak, herrixkak, nekropoliak, etab.
- Paisaia balioa. Multzoarekiko aldeetatik edo harmoniatatik, paisaia nabarmen edertzen eta aberasten duen ingurune bateko mahastia. Halaber, ingurune horretako toki estrategikoetatik ondo ikusi ahal izatea balioetsiko da.

4. artikulua.- Prozedura

1- Mahastizaintza eta enologia arloan eskumena duen sailak, mahasti jakin bat edo mahasti multzo bat katalogatzeko espedientea hasi ondoren, justifikazio txosten teknikoak egingo du, Arabako Foru Aldundiaren eskura dauden edo haren titularrek emandako datuekin. Txosten horretan, honako hauek, behintzat, jasoko dira:

- a- Erantsitako balorazioaren arabera, mahasti nabarmenen barruan zein kategoriatan sartzea proposatzen den.
- b- Hura osatzen duten esparruaren edo esparruen SIGPAC identifikazioa eta haren mugak, baldin eta ez badute hartzen SIGPAC esparru osoa, krokis egokia erabiliz, bai eta Mahastien Erregistroaren arabera inskribatutako azalera eta katalogatutako azalera ere.
- c- Mahastiaren edo mahatsondoen deskribapena, Mahasti Nabarmenen Katalogoan jasotzeko merezimenduak bereziki jorratuta.
- d- Mahastiaren edo mahasti multzoaren jabea, mahastizain kartillaren titularra eta mahastia lantzen duen nekazaritza ustiategia.
- e- Mahastia edo mahasti multzoa landatu zen data eta landatzea egiaztatzen duen informazioa, halakorik izanez gero.
- f- Esparruaren kontserbazioan eragin kaltegarria izan dezaketen faktoreen azterketa.
- g- Aurreko datuetan oinarritutako gomendioa, kontserbatu beharreko berariazko neurriei buruzkoa.

2- Mahasti Nabarmenen Katalogoan jasotzeko ebazpena hartu aurretik, txosten hori prozeduran interesa duten pertsona fisiko edo juridikoei bidaliko zaie (jabea, mahastizain kartillaren titularra eta mahastia lantzen duen ustiategia eta beste interesdun batzuk), gehienez ere hilabeteko epean egoki irizitako alegazioak egin ditzaten.

3- Mahasti bat edo mahasti multzo bat katalogotik kanpo uztea edo kategoriaz aldatzea haren titularren ekimenez edo ofizioz, mahastizaintzan eta enologian eskumena duen sailaren bidez, egingo da, katalogoan sartzea ekarri zuten arrazoiak aldatu edo desagertu direla egiaztatzen duen txosten teknikoak eginda lehenago. Katalogoa bertan behera uzteko edo hango kategoriaren bat aldatzeko, aurreko apartatuan deskribatutako prozedura bera erabiliko da.

5. artikulua.- Ebazpena.

Mahasti edo mahasti multzo bat Arabako Lurralde Historikoko Mahasti Nabarmenen Katalogoan sartzeko, kentzeko edo kategoriaz aldatzeko, mahastizaintza eta enologia arloan eskumena duen saileko diputatuaren foru agindua beharko da, eta ALHAOn argitaratuko da.

6. artikulua.- Katalogazioaren betekizunak eta baldintzak

1.- Mahasti bat Mahasti Nabarmenen Katalogoan jasota egoteko, laboreak izaten jarraitu behar du eta titularrak behar bezala mantendu behar du. Bestela, katalogotik kendu beharko da 4. artikuluan ezarritako prozeduraren arabera.

2.- Era berean, katalogazioari eusteko, teknika tradizionalen arabera landu behar da, eta beste aukera edo berrikuntza jardunbide batzuk ere onartu ahal izango dira, betiere behar bezala justifikatzen badira eta kontserbazioari kalte egiten ez badiote.

Era berean, mahastiaren ustiapena ardo egiteko mahatsa ekoiztea izan behar da, bai eta haren interes ekonomikotik edo bestelakotik eratorritako beste erabilera batzuk ere: bisita enoturistikoak, landare materialaren ugalketa, ikerketa edo beste batzuk.

3.- Katalogatutako edo kataloga daitekeen mahasti bat erauzteko eskatzen denean, Mahastizaintza Ahalmenari buruzko Araudiak (1338/2018 Errege Dekretua edo haren ordezkoa) hori egiteko eskatzen duen baimena Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzuak erauzketa asmo hori iragarri ondoren emango da, eragile interesdunek haren kontserbazioa ziurta dezakeen interesen bat adieraz dezaten, hala badagokio. Mahastia erauzteko asmoari buruzko komunikazio publikoak hilaibete, behintzat, iraun beharko du, hartarako eskaera egiten den egunetik zenbatzen hasita. Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzuak eskaera horri buruzko txosten bat egingo du, zeina ez baita loteslea izango, baina bai izan daiteke kontrakoa.

4.- Mahastizaintza eta enologia arloan eskumena duen sailak izapidetutako laguntza edo dirulaguntza eskaerek, bai eta mahastiak berregituratzekoek eta birmoldatzekoek ere, katalogoan jasotako mahastiren bat erauztea badakarte, laguntza horien orientazio estrategikoetan ezarritakoa bete beharko dute, edo, bestela, Arabako Lurralde Historikoan aplikatu beharreko araudian ezarritako orientazioak, haiek autonomiakoak, estatukoak edo Europakoak izan.

Irizpide bera aplikatuko zaie mahasti nabarmenak jasotzen ez dituzten eskaerei, bai eta nabarmenak izateko prozesuan egon baina laguntzaren xede diren eragiketak garatzearen ondorioz nahitaez erauziko diren mahastiak edo, azkenean, nahiz eta eragiketa horietarako beharrezkoa ez izan, erauzten diren mahastiak jasotzen ez dituzten eskaerei ere.

5.- Mahastietako faltan ehunekoak indarreko araudian ezarritakoa gainditzen badu, katalogazioa eta erregistroko adina mantendu egingo dira, baldin eta faltak mahats landarez sartzan badira eta mahasti bereko landare materialarekin (begiak edo zurkaitzak) txertatzen bada. Hala egiten ez bada, berriz ebaluatu beharko da mahastia inskribatuta mantendu behar den, eta, hala badagokio, katalogotik kenduko da edo kategoriaz jaitsiko da.

6.- Arabako Foru Aldundiko langileak mahastietara sartu ahalko dira, baldin eta helburu teknikoetarako edo behar bezala justifikatutako beste zerbaitetarako interesa badute. Era berean, mahastizaintzan eta enologian eskumena duen Arabako Foru Aldundiko sailak mahastitik datorren landare materiala erabili ahal izango du, mahastiaren jabeak eta/edo, hala badagokio, titularrak baimena eman ondoren, mahastia iraunarazteko edo ugaritzeko.

7.- Konpentsazio ekonomikoak edo bestelakoak gaitu ahalko dira katalogoan jasotako mahastien titularrentzat, hala nola berreskuratze edo mantentze lanetarako laguntzak (adibidez, zurkaitzak, ureztatzea, faltak sartzea edo landare estalkiak), karakterizazioa, lehendik dauden mahats

barietateen azterketa eta klonen hautaketa edo ezar litekeen beste edozein laguntza.

8.- Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzuaren bidez aztertuko dira mahasti horien lurrak edo hostoak, eraz mantendu edo lantzeko beharrezkoak badira, titularrek inolako kargurik izan gabe, behar bezala justifikatutako eskaera egin ondoren.

9.- Mahasti Nabarmen baten katalogazioa publizitate edo merkataritza helburuetarako erabili ahal izango da.

10.- Mahastizaintza eta enologia arloan eskumena duen sailak mahasti zaharrenak behar bezala mantentzeko prestakuntza ekintzak sustatuko ditu.

11.- Mahasti Nabarmen Katalogoan jasotako mahastiak kartel bat erabiliz seinaleztatu ahal izango dira mahastiaren perimetroan, bisitariak ondo ikusteko leku batean jarrita. Bertan, honako datu hauek editatuko dira: katalogoan zein datatan sartu diren, mahastiaren jabea, antzinasuna, landare materiala, laborantza tartea, gida sistema, zer ardo ematen duten, eta abar. Seinaleztapen horretaz gain, mahastiaren jabeak beste errotulu, kartel, inskripzio, forma, logotipo edo irudi batzuk ere erabili ahal izango ditu, horretarako indarrean dagoen araudiari jarraituz.

Artikulu honen ondorioetarako, katalogagarriak izan daitezkeen mahastitzat joko dira 1978an edo lehenago landatu direnak.

7. artikulua.- Katalogoaren edukia

1.- Katalogoan, unitate bat osatzen duten mahasti edo mahasti multzo bakoitzeko, honako datu hauek jasoko dira:

- Unitatea osatzen duten esparruaren edo esparruen SIGPAC identifikazioa.
- Mahastien Erregistroko datuen arabera hartzen duen azalera.
- Txosten teknikoaren datuak, berariaz aipatuta katalogoan jasotzeko interesa zehazten duten ezaugarriak.
- Mahasti nabarmenen barruan, zein kategoriatan proposatzen den, arrazoiak justifikatuta.
- Katalogoan jasotzeko, katalogoaren barruan kategoria aldatzeko eta/edo, hala badagokio, kanpoan uzteko datak.

2.- Aldian-aldean, mahastiari edo mahasti multzoari buruzko datuak eguneratu egingo dira, eta egiten diren aldaketak katalogoan jasoko dira.

3.- ALHko Mahasti Nabarmen Katalogo zaintzea, mantentzea eta eguneratzea mahastizaintza eta enologia arloan eskumena duen sailari dagokio, eta haren datuak ALHko Mahastien Erregistroan sartuko dira.

8. artikulua.- Babes neurri osagarriak

Dekretu honetan ageri diren mahasti nabarmenak kontserbatzeko eta babesteko neurri eta pizgarriak bateragarriak izango dira etorkizunean balia daitezkeen edo zeinahi antolakunde edo erakunde publikok nahiz pribatuk ezar ditzakeen beste batzuekin.

II. ERANSKINA

Hona hemen zer alderdi ebaluatzen diren Arabako Lurralde Historikoko Mahasti Nabarmentzat jotzeko:

- Adina. Oro har, mahastia zenbat eta zaharragoa izan, orduan eta interes handikoagoa da. Berezi baliotsuak dira filoxeraren izurriteak XX. mendearen hasieran Errioxako eta Arabako mahastiak erruz hondatu aurretik txertatu gabe landatu ziren mahastiak, oraindik ere zutik egon daitezkeenak zona jakin batzuetan, kontserbatu ahal izan direlako zonen ezaugarri bereziei esker.

1957ko edo lehenagoko adina: 3 puntu

1958 eta 1968 artekoa: 2 puntu

1969 eta 1978 artekoa: puntu 1

- Osasun, kontserbazio eta mantentze egoera: gaixotasunek edo izurriteek erasotzeko minberatasuna edo joera, falta kopurua, aireko belaunketa bidez birlandatutako eta ordeztutako mahatsondo ehunekoak, besteak beste, aintzat hartu beharreko alderdiak dira mahastiaren kontserbazioa ebaluatu eta haren kategorizazioa proposatzeko. Alderdi hori oinarritzat denez, haren egoeraren arabera puntuazio negatiboak eman ahal izango dira:

Mahastizaintza lurzati faltan azaleraren arabera, honela baloratuko da:

> ehuneko 35, -2 puntu; ehuneko 15-35, -1 puntu; ehuneko 5-15, 0 ; <ehuneko 5, 1 puntu.

Puntuazio hori mahastiaren egoera orokorraren arabera aldatu ahal izango da, baina gehienez 2 puntu lortu ahal izango dira.

- Landaketa tartea:

Balorazioa: kaleak > 1,80 m 0 puntu, erauzitako kaleak eta tartea <= 1,80ra 1 puntu, kaleak <= 1.80 m edo tarte irregularra 2 puntu.

- Oraingo barietateak. Dena delako zonan ohikoak ez diren 2 barietate edo gehiago egotea.

Barietate 1 soilik 0 puntu, 2 barietate puntu 1, 2 baino gehiago 2 puntu.

- Ahalmen enologikoa edo aitortutako ardoen jatorria:

Balorazioa: aitorten enologikoren bat duen mahasti aitortua puntu 1, berariazko aitortenik gabe 0 puntu.

- Berezitasuna: bakana ote den kokalekuan; zer landare material duen; aireko belaunketarik ote dagoen; eitea; harrien artean, lurak maldan egonda, terrazetan edo sestra kurben arabera landatu ote den.

Balorazioa: 0 edo 1, aipatutako elementuen presentziaren arabera.

- Biodibertsitatea. Bai olibondoa edo arbendolondoa bezalako beste zuhaitz labore batzuekin txandakatzeagatik, bai animalia, landare eta organismo bizien aberastasun berezia eragiten duen espazio batean egoteagatik. Mahastiaren inguruan zuhaizti edo zuhaitz apartekoak egoteak ere balioa ematen diote.

Balorazioa: 0 edo puntu 1, aipatutako elementuen presentziaren arabera.

- Elementu edo aztarna zahar: arkitektonikoak, eraikuntzakoak, arkeologikoak edo beste oroipen batzuk, mahastian edo inguruetan gizakiak izan duen presentzia edo egin duen jarduera agerian uzten dutenak, hala nola harkaitzetako dolareak, txabolak, etxetxoak, mahastiak zaintzeko etxolak, harrizko hormak, trikuharriak, menhirrak, herrikkak, nekropoliak, etab.

Balorazioa: 0 edo puntu 1, aipatutako elementuen presentziaren arabera.

- Historia, kultura eta paisaia balioa: multzoarekiko aldeagatik edo harmoniagatik, paisaia nabarmen edertzen eta aberasten duen ingurune bateko mahastia. Halaber, ingurune horretako toki estrategikoetatik ondo ikusi ahal izatea eta bisitetarako sarbide erraza izatea balioetsiko da, baita alderdi historiko garrantzitsuak ere.

Balorazioa: 0 edo puntu 1, aipatutako elementuen presentziaren arabera.

- Justifikatu beharreko beste ezaugarri batzuk, zeinei buruz irizten baita mahastien balioa indartzen dutela:

Balorazioa: 0 edo puntu 1, aipatutako elementuen presentziaren eta justifikazioaren arabera.

Lor daitekeen gehieneko puntuazioa 15.

Mahastia nabarmen gisa sailkatzeko, gutxienez 5 puntu lortu beharko dira. 9 puntu lortuz gero, gainera, aparta izatearen kalifikazioa lortuko du, eta 12 puntu lortuz gero, monumentala izatearena ere bai.

Mahasti baten azken sailkapena ez bada baremoari dagokiona, behar bezala justifikatu beharko da.